

LAB, UGT eta ELAren oharra

EAEko Telelaguntza Zerbitzuko langileak Sabin Etxean mobilizatu gara EAJren arduragabekeria salatzeko

Eusko Jaurlaritzako betiON zerbitzuko langileok maiatzaren 11n izan genuen azken bilera patronalarekin. Hilabete hauetan 24 orduko 9 greba egun egin ditugu, eta zerbitzu minimoak gehiegizkoak badira ere, jarraipena itzela izan da.

Hainbat izan dira orain arte egindako mobilizazioak, kontzentrazioak eta asanbladak, baita Eusko Jaurlaritzako hainbat politikarirekin izandako bilerak gure lan gatazka azaleratu eta zerbitzu publiko honen egoeraren berri emateko. Zoritxarrez, EAJekin egindako bileran ez genuen berri onik jaso.

Guk argi utzi diegu enpresari eta Eusko Jaurlaritzari erosteko ahalmenik galduko ez dugula, eta ez dugula hitzarmenean atzerapausorik onartuko.

Enpresak KPIa kontuan izan gabe eta aurreko hitzarmeneko lorpen baten truke egin digu mahai negoziatzailean lehenengo eskaintza. Negoziatzen saiatu bagara ere, beti KPIaren gainetik, ez dute haien proposamena zirkinik ere aldatu.

Horregatik maiatzaren 12 greba egun deitzea erabaki genuen greba batzordean gauden LAB, UGT eta ELAko kideok, maiatzaren 14, 17, 18, 19, 20, 21, 25, 26, 27, 28, 30 eta 31n, hain zuzen ere.

Gaur bigarren egun greba egin dugu eta jarraipena, berriz ere, itzela izan da. Bilboko Gran Viatik mobilizatu gara eta Sabin Etxearen aurrean amaitu dugu mobilizazioa, EAJri gogorarazteko gatazka honetan duen ardura honetan.

Hurrengo mobilizazioak:

Maiatzaren 19an, ostegunean, Bilboko itsasadarretik mobilizazio bat egingo dugu, itsasontziz. Eguerdiko 12:00etan Pio Baroja kariatik abiatuko gara eta 12:45etan San Ignazio auzora helduko gara, gure lantokiaren aurrean (Zarandona etorbidean Aragoa kalearen 2. zenbakiaren parean).

Maiatzaren 20an, ostiralean, Euskal Jaurlaritzaren aurrean (Gran Via, 85) elkarrataratze bat egingo dugu, goizeko 10:30ean.

Telelaguntza borrokan! BetiON borrokan!

Bilbon, 2022ko maiatzaren 17an